

# GRANDES COROS DE ÓPERA

CONCIERTOS PARTICIPATIVOS

KONTZERTU PARTIZIPATIBOAK

Art FOR Change "la Caixa"

**Sábado 3 de noviembre de 2018**
**20 h**
**Auditorio Baluarte**
**PAMPLONA**

Larunbata, 2018ko azaroaren 3a
20:00
Baluarte Auditorioa
Iruñea

osn
ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
PABLO SARASATE

FUNDACION BALUARTE FUNDAZIOA

FUNDACIÓN CAJANAVARRA

Obra Social "la Caixa"

## ORQUESTA SINFÓNICA DE NAVARRA
## NAFARROAKO ORKESTRA SINFONIKOA

Manuel Hernández-Silva, *director titular*/*zuzendari titularra*

## CORO DE AGAO
## AGAOREN ABESBATZA

Iñigo Casalí, *director*/*zuzendaria*

**Itsaso Loinaz,** *soprano*/*sopranoa*, "Casta Diva"

AGRUPACIÓN CORAL TAFALLESA
Alicia Osés Carro, *directora*/*zuzendaria*

CORAL CAMINO DE SANTIAGO DE AYEGUI
AIEGIKO DONE JAKUE BIDEAREN ABESBATZA
José Mª Chasco Urabayen, *director*/*zuzendaria*

CORAL ERRENIEGA DE LA CENDEA DE CIZUR
ZIZUR ZENDEAKO ERRENIEGA ABESBATZA
Yaritza Farah Núñez, *directora*/*zuzendaria*

CORAL POLIFÓNICA DE LA ESCUELA DE MÚSICA DE PERALTA
AZKOIENGO MUSIKA-ESKOLAKO ABESBATZA
David Echeverría Irigaray, *director*/*zuzendaria*

CORO DE CÁMARA AIZAGA DE PAMPLONA
IRUÑEKO AIZAGA GANBERA-ABESBATZA
Andrea Echavarren, *directora*/*zuzendaria*

DIRECTOR PREPARADOR / ZUZENDARI PRESTATZAILEA
**DANIEL MESTRE**

DIRECCIÓN/ZUZENDARITZA
## SERGIO ALAPONT



# PROGRAMA

## GRANDES COROS DE ÓPERA

**"Obertura"*** de *Guillaume Tell* – **Gioachino Rossini** (1792-1868)

**"Casta Diva"** de *Norma* – **Vincenzo Bellini** (1801-1835)

**"Coro de refugiados escoceses"** de *Macbeth* – **Giuseppe Verdi** (1813-1901)

**"Coro de matadores"** de *La Traviata* – **Giuseppe Verdi**

**"Coro de esclavos hebreos"** de *Nabucco* – **Giuseppe Verdi**

**"Marcha de los toreadores"** de *Carmen* – **Georges Bizet** (1838-1875)

— Pausa —

**"Bacchanale"*** de *Samson et Dalila* – **Camille Saint-Saëns** (1835-1921)

**"Coro *a bocca chiusa*"** de *Madama Butterfly* – **Giacomo Puccini** (1858-1924)

**"Himno de Pascua"** de *Cavalleria rusticana* – **Pietro Mascagni** (1863-1945)

**"Coro de peregrinos"** de *Tannhäuser* – **Richard Wagner** (1813-1883)

**"Escena triunfal"** de *Aida* – **Giuseppe Verdi**

* Piezas instrumentales

# — PRIMERA PARTE / LEHENENGO ZATIA —

## "Obertura"

*Guillaume Tell* – **Gioachino Rossini** (1792-1868)

Pieza instrumental
Estreno: 3 de agosto de 1829, en la Ópera de París

A la manera de las grandes óperas, el concierto se inicia con una obertura, en este caso, de Rossini, uno de los compositores más destacados de la ópera italiana de la primera mitad del siglo XIX y uno de los más celebrados por sus oberturas, que suelen tener una gran riqueza melódica. Inspirada en las hazañas del legendario héroe suizo, *Guillaume Tell* es la última ópera que escribió y su obertura es uno de los fragmentos musicales más conocidos y brillantes.

Opera handien antzera, kontzertua obertura batekin hasten da; kasu honetan, Rossiniren oberturarekin. Rossini da XIX. mendearen lehenengo zatiko Italiako opera-konpositorerik nabarmenenetakoa, eta, bere oberturei esker, ezagunenetakoa, obertura horiek aberastasun handia baitute melodiaren aldetik. Suitzako heroi ospetsuaren balentrietan inspiratua dago *Guillaume Tell* opera, Rossinik idatzitako azkena, eta haren obertura musika-pasarte ezagun eta bikainenetakoa da.

## "Casta Diva"

*Norma* – **Vincenzo Bellini** (1801-1835)

Texto: Felice Romani, basado en la tragedia homónima de Alexandre Soumet
Estreno: 26 de diciembre de 1831, en La Scala de Milán

Escrita para soprano y coro, "Casta Diva" es una de las arias más emblemáticas y versionadas del repertorio operístico. En el primer acto, Norma, suma sacerdotisa de los druidas galos, canta a la diosa de la luna pidiéndole que favorezca la paz, mientras siega el muérdago sagrado con su hoz de oro. Presionada por sacerdotes y guerreros, debe dar la orden de atacar a los romanos, pero, enamorada del procónsul Pollione, su corazón no puede hacerlo e intenta demorar su decisión.

"Casta Diva" izeneko aria soprano eta abesbatzarentzat idatzia dago; opera-errepertorioko aria ezagunenetakoa da, eta bertsiorik gehien egin zaizkionetakoa. Lehenengo ekitaldian, Normak, Galiako druiden emakume apaiz nagusiak, Ilargiaren jainkosari kantatuko dio, bakearen alde egin dezala eskatuz, bere urrezko igitaiarekin mihura sakratua ebakitzen duen bitartean. Apaizek eta gudariek bultzatuta, erromatarrei eraso egiteko agindua eman behar du, baina Pollione prokontsularekin maiteminduta dago, eta bere bihotzak ezin du hori egin, eta erabakia atzeratzen saiatuko da.

## "Coro de refugiados escoceses"

*Macbeth* – **Giuseppe Verdi** (1813-1901)

Texto: Francesco Maria Piave (revisado por Andrea Maffei), a partir de la tragedia homónima de William Shakespeare
Estreno: 14 de marzo de 1847, en el Teatro della Pergola de Florencia

Aunque el pueblo escocés no tiene un papel destacado en la obra de Shakespeare, Verdi quiso ensalzarlo introduciendo una gran escena coral que, seguramente, también aludía a la situación política de la Italia de su época. Al comienzo del cuarto acto, en la frontera entre Escocia e Inglaterra, los refugiados escoceses se reagrupan y cantan "Patria oppressa", un coro lleno de añoranza que entonan antes de formarse el ejército que acabará con Macbeth.

Eskoziako herriak ez du garrantzi nabarmenik Shakespeareren obran, baina, hala ere, Verdik herri hori goraipatu egin nahi izan zuen, eszena koral handi bat sartuz; eszena horrek, seguru asko, Verdiren garaiko Italiako egoera politikoa ere iradoki nahi zuen. Laugarren ekitaldiaren hasieran, Eskozia eta Ingalaterraren arteko mugan, Eskoziako errefuxiatuak bildu egingo dira, eta "Patria oppressa" abestuko dute; nostalgiaz beteriko koru hori kantatuko dute, Macbeth hilko duen armada osatu aurretik.



## "Coro de matadores"

*La Traviata* – **Giuseppe Verdi** (1813-1901)

Texto: Francesco Maria Piave, basado en la novela *La dame aux camélias*, de Alexandre Dumas
Estreno: 6 de marzo de 1853, en La Fenice de Venecia

*La Traviata* narra la historia de amor entre Violetta y Alfredo. Tras separarse, ambos asisten a la fiesta de disfraces que Flora, amiga de Violetta, celebra en París. Allí, Gastone —admirador de la protagonista— y sus amigos se unen a los toreros e interpretan este coro, que describe otra historia de amor: la del matador vizcaíno Piquillo con una joven andaluza, quien le promete su mano y también su corazón si es capaz de matar cinco toros en un solo día.

*La Traviata* operak Violetta eta Alfredoren arteko maitasun-historia kontatzen du. Elkarrengandik banandu ondoren, Violettaren lagun Florak Parisen ospatzen duen mozorro-festara joango dira biak. Han, Gastone —protagonistaren mireslea— eta haren lagunak toreatzaileekin elkartuko dira, eta koru hau interpretatuko dute; koruak beste maitasun-istorio bat azaltzen du: Piquillo Bizkaiko toreatzailearen eta Andaluziako neska gazte baten artekoa; neskak ezkontzeko hitza emango dio, eta bere bihotza eskainiko, egun bakar batean bost zezen hiltzeko gai bada.

## "Coro de esclavos hebreos"

*Nabucco* – **Giuseppe Verdi**

Texto: Temistocle Solera, basado en el Antiguo Testamento y en la obra *Nabuchodonosor* de Auguste Anicet-Bourgeois y Francis Cornu
Estreno: 9 de marzo de 1842, en La Scala de Milán

A orillas del río Éufrates, en Babilonia, los hebreos encarcelados y condenados a muerte cantan un emotivo coro que rememora la dulzura y la pérdida de su amada tierra natal y que también trata de infundirles coraje en medio del sufrimiento. "Va, pensiero" ("Vuela, pensamiento") fue un rotundo éxito en su estreno, convirtiéndose después en un himno patriótico y en uno de los símbolos más destacados del movimiento por la unidad de Italia.

Eufrates ibaiaren ertzean, Babilonian, kartzelan eta hiltzera kondenatuta dauden hebrearrak koru hunkigarri bat kantatzen ari dira; koruak gogora ekartzen die beren jaioterri maitearen goxotasuna eta galera, eta, era berean, indarra ematen die oinazearen erdian. "Va, pensiero" ("Zoaz hegan, pentsamendu") erabateko arrakasta izan zen estreinaldian, eta gero aberriaren ereserkia eta Italiaren batasunaren aldeko mugimenduaren sinbolorik garrantzitsuenetakoa bihurtu zen.

## "Marcha de los toreadores"

*Carmen* – **Georges Bizet** (1838-1875)

Texto: Henri Meilhac y Ludovic Halévy, basado en la novela homónima de Prosper Mérimée
Estreno: 3 de marzo de 1875, en la Opéra-Comique de París

En Sevilla, en el último acto y poco antes del trágico desenlace de la muerte de Carmen a manos de Don José, las diferentes cuadrillas de toreros, banderilleros y picadores llegan a la plaza de toros. El coro canta la conocida melodía que aclama a cada una de las cuadrillas, en un espectacular desfile que culmina con la apoteosis final de la llegada del primer espada, Escamillo, acompañado por una Carmen esplendorosa y radiante.

Sevillan, azken ekitaldian eta José jaunak Carmen hiltzen duen amaiera tragikoa baino pixka bat lehenago, toreatzaileen, banderilleroen eta pikatzaileen kuadrillak zezen-plazara iritsiko dira. Kuadrilla bakoitza txalotzen duen melodia ezaguna kantatuko du koruak, desfile ikusgarri batean. Desfilearen amaiera izugarria da: Escamillo lehenengo ezpataria iritsiko da, eta bere alboan izango du Carmen, distiratsu eta irribarretsu.

— PAUSA / **ETENALDIA** —

## "Bacchanale"

*Samson et Dalila* – **Camille Saint-Saëns** (1835-1921)

Pieza instrumental

Estreno: 2 de diciembre de 1877, en el Gran Teatro Ducal de Weimar

Sansón, líder hebreo y gran juez de Israel, pierde su fuerza sobrehumana cuando Dalila, tras seducirlo, descubre su secreto y le corta el pelo mientras duerme. En el tercer y último acto, Sansón —derrotado, ciego y encadenado— es llevado al templo de Dagón en Gaza, donde se ejecuta la famosa "Bacchanale" que pone música a las celebraciones por la victoria de los filisteos y que podremos escuchar como preludio de la segunda parte del concierto.

Sanson hebrearren buruzagi eta Israelgo epaile handiak bere indar izugarria galdu du, Dalilak, liluratu ondoren, haren sekretua antzeman eta lotan dagoela ilea moztu baitio. Hirugarren eta azken ekitaldian, Sanson —garaituta, itsututa eta kateatuta— Gazako Dagon tenplura daramate; bertan, "Bacchanale" famatua jotzen ari dira, filistiarren garaipena ospatzeko musika; musika hori entzungo dugu kontzertuaren bigarren zatiari hasiera emateko.

## "Coro *a bocca chiusa*"

*Madama Butterfly* – **Giacomo Puccini** (1858-1924)

Coro sin texto

Estrenos: 17 de febrero de 1904, en La Scala de Milán (en dos actos), y 28 de mayo de 1904, en el Teatro Grande de Brescia (en tres actos)

La música expresa emociones sin necesidad de palabras. Al final del segundo acto, Cio-Cio-San, la joven *geisha* protagonista del drama, se entera de que su amado Pinkerton ha vuelto a Nagasaki. Es de noche y, con el hijo de ambos dormido en su regazo, espera en silencio e ilusionada su llegada. En la lejanía, oye unas voces que cantan a boca cerrada esta hermosa melodía que, desgraciadamente, también parece insinuar que el nuevo día no le traerá aquello que desea.

Musikak emozioak adierazten ditu, hitzik esan beharrik gabe. Bigarren ekitaldiaren amaieran, Cio-Cio-San gazteak, dramaren protagonista den *geishak*, jakin du Pinkerton maitea Nagasakira itzuli dela. Gaua da, eta bien semea magalean lotan duela, isilik eta ilusioz beterik dago haren zain. Han, urrunean, ahots batzuk entzuten ditu melodia eder hau kantatzen ahoa itxita; zoritxarrez, badirudi melodiak beste zerbait ere iradokitzen duela, alegia, egun berriak ez diola ekarriko nahi duen hori.

## "Himno de Pascua"

*Cavalleria rusticana* – **Pietro Mascagni** (1863-1945*)*

Texto: Giovanni Targioni-Tozzetti y Guido Menasci, basado en el drama homónimo de Giovanni Verga

Estreno: 17 de mayo de 1890, en el Teatro Costanzi de Roma

Escrita en un solo acto, *Cavalleria rusticana* es una de las obras más significativas del *verismo* italiano. Ambientada en un pueblo siciliano a finales del siglo XIX, narra una historia de amor, celos y venganza durante la celebración de la Semana Santa. Es domingo de Pascua, y todos —salvo Santuzza y la madre de Turiddu— entran en la iglesia para cantar este famoso coro dedicado a Jesús resucitado, que muestra la influencia de la religión en la vida rural del sur de Italia.

Ekitaldi bakar batean idatzita dago *Cavalleria rusticana*, eta Italiako *verismoaren* obrarik adierazgarrienetakoa da. XIX. mende amaierako Siziliako herri batean girotutako obra honek amodio-, jelosia- eta mendeku-istorio bat kontatzen du, Aste Santua ospatzerakoan gertatzen dena. Pazko igandea da, eta denak —Santuzza eta Turiddu-ren ama salbu— elizara sartu dira Jesus berpiztuari eginiko koru famatu hau kantatzera; koruak agerian jartzen du nolako eragina duen erlijioak Italia hegoaldeko landa-giroko bizitzan.



## "Coro de peregrinos"

*Tannhäuser* – **Richard Wagner** (1813-1883)

Texto: Richard Wagner

Estrenos: 19 de octubre de 1845, en el Teatro de la Corte de Dresde, y 13 de marzo de 1861, en la Ópera de París (versión revisada)

A lo largo de toda la obra, Tannhäuser se debate entre el amor sagrado que le inspira Elisabeth y el profano encarnado por Venus. El conocido tema de los peregrinos, que se expone por primera vez en la obertura y que simboliza el perdón de los pecados y la salvación, se presenta en esta escena del tercer acto como un grandioso número coral que muestra el júbilo de los que regresan de Roma absueltos. Pero Tannhäuser, a quien Elisabeth espera, no va con ellos.

Obra guztian, Tannhäuser zalantzan dago, Elisabethek sentiarazten dion maitasun sakratuaren eta Venusek irudikatzen duen maitasun profanoaren artean. Hirugarren ekitaldiko eszena honetan aurkezten da erromesen gai ezaguna, oberturan lehenengo aldiz agertzen dena eta bekatuen barkamena eta salbazioa irudikatzen dituena; gaia emanaldi koral handi baten moduan aurkezten da, eta Erromatik bekatuak barkatuta itzuli direnen poztasuna erakusten du. Baina Elisabeth zain duen arren, Tannhäuser ez doa haiekin.

## "Escena triunfal"

*Aida* – **Giuseppe Verdi**

Texto: Antonio Ghislanzoni, basado en un argumento del egiptólogo francés Auguste Mariette

Estreno: 24 de diciembre de 1871, en la Ópera de El Cairo

A las puertas de la ciudad de Tebas, el general egipcio Radamés regresa victorioso tras derrotar al ejército etíope y desfila con sus tropas ante el rey. La solemnidad y la alegría del momento son recogidas por este magnífico coro que canta la gloria de Egipto y da gracias a los dioses por la victoria, y que también incluye el célebre pasaje instrumental de las trompetas egipcias de *Aida*, diseñadas por Verdi para la ocasión.

Tebas hiriaren ateetan, Radamés Egiptoko jenerala garaile itzuli da, Etiopiako armadari irabazi ondoren, eta erregearen aurrean desfilatzen ari da bere soldaduekin. Une horretako solemnitatea eta poza jasotzen ditu koru bikain honek, Egiptoren aintza kantatuz eta jainkoei eskerrak emanez garaipenagatik; koruan, *Aida* obrako tronpeta egiptoarren pasarte instrumental ospetsua ere sartzen da; tronpeta horiek egokiera horretarako diseinatu zituen Verdik.

# *Biografías*
# *Biografiak*



## *Coro de AGAO / AGAOren abesbatza*



Desde su creación, en 1992, el Coro de AGAO (Asociación Gayarre Amigos de la Ópera) ha participado en numerosas producciones escénicas, interpretando óperas de Mozart, Donizetti, Rossini, Verdi, Bizet, Mascagni, Puccini y Arrieta, y zarzuelas de Vives, Luna, Gaztambide y Guerrero, entre otros autores.

A lo largo de su trayectoria, ha sido preparado por maestros como Juan Carlos Múgica, José Luis Lizarraga, José Antonio Huarte, Máximo Olóriz e Iñigo Casalí, su actual director. En la actualidad, cuenta con más de setenta miembros estables.

El coro lleva a cabo una intensa actividad concertística y también ofrece espectáculos operísticos a pie de calle, encaminados a acercar la ópera a todos los públicos. En el 2010, su iniciativa para celebrar el Día Europeo de la Ópera fue galardonada por la institución European Opera Days como una de las tres mejores actividades del continente europeo, obteniendo dicho evento más de seis millones de visitas en su canal de YouTube.

Ha cantado junto a solistas como las sopranos María Bayo, Amarilli Nizza, Sabina Cvilak, Sabina Puértolas y Desirée Rancatore; la mezzosoprano Maite Beaumont; los tenores Jorge de León, Antonio Gandía y Aquiles Machado; los barítonos Vicente Sardinero y Juan Jesús Rodríguez, y el bajo-barítono Carlos Chausson; y también con directores como Miquel Ortega, Marco Armiliato, José Miguel Pérez-Sierra, Óliver Díaz y Sergio Alapont, entre otros muchos.

1992an sortu zenetik, AGAOren Abesbatzak (Asociación Gayarre Amigos de la Ópera) hainbat eszena-produkziotan parte hartu du; horrela, beste egile batzuen artean, Mozart, Donizetti, Rossini, Verdi, Bizet, Mascagni, Puccini eta Arrietaren operak eta Vives, Luna, Gaztambide eta Guerreroren zarzuelak interpretatu ditu.

Bere ibilbidean zehar, hainbat maisuk prestatu dute abesbatza; adibidez, Juan Carlos Múgicak, José Luis Lizarragak, José Antonio Huartek, Máximo Olórizek eta egungo abesbatzaren zuzendari Iñigo Casalík. Gaur egun, hirurogeita hamar kide egonkor baino gehiago ditu.

Abesbatzak kontzertu ugari eskaintzen ditu, bai eta opera-ikuskizunak ere kalean bertan, opera jende guztiarengana gerturatzeko helburuarekin. 2010ean Operaren Europako Eguna ospatzeko izan zuen ekimena saritu zuen European Opera Days erakundeak, eta Europa kontinenteko hiru jarduera onenen artean sailkatu zuen; ekitaldi horrek sei milioi bisita baino gehiago izan zituen YouTuben duen kanalean.

Zenbait bakarlarirekin kantatu izan du abesbatzak: adibidez, María Bayo, Amarilli Nizza, Sabina Cvilak, Sabina Puértolas eta Desirée Rancatore sopranoekin; Maite Beaumont mezzosopranoarekin; Jorge de León, Antonio Gandía eta Aquiles Machado tenoreekin; Vicente Sardinero eta Juan Jesús Rodríguez baritonoekin eta Carlos Chausson baxu-baritonoarekin. Era berean, beste askoren artean, Miquel Ortega, Marco Armiliato, José Miguel Pérez-Sierra, Óliver Díaz eta Sergio Alapont zuzendariekin ere kantatu izan du.

# *Orquesta Sinfónica de Navarra*
# *Nafarroako Orkestra Sinfonikoa*



Fundada en 1879 por Pablo Sarasate, la Orquesta Sinfónica de Navarra (OSN) es la agrupación más antigua en activo del panorama orquestal español. En la actualidad, está integrada en la Fundación Baluarte, una institución financiada principalmente por el Gobierno de Navarra, y como tal es la orquesta oficial de la Comunidad Foral.

En sus casi ciento cuarenta años de existencia, la Sinfónica de Navarra ha actuado en los principales auditorios, temporadas de ópera y festivales, tanto en España como en el extranjero. Destaca especialmente su presencia en varias ocasiones en el Teatro de los Campos Elíseos y en el Teatro del Châtelet de París, así como una gira de conciertos organizada por el sello Universal Music en importantes escenarios europeos.

Como intérprete de referencia del compositor y violinista navarro Pablo Sarasate, su grabación de la integral de su obra para Naxos con la violinista Tianwa Yang ha sido unánimemente aclamada por la crítica internacional. También para este sello, la orquesta ha realizado recientemente un programa de grabaciones con el director Antoni Wit.

La OSN ofrece una temporada anual de conciertos en el Auditorio Baluarte de Pamplona y en el Teatro Gaztambide de Tudela, y desarrolla igualmente una importante actividad social y educativa en toda Navarra. Desde el inicio de la presente temporada, Manuel Hernández-Silva es su director titular y artístico.

Nafarroako Orkestra Sinfonikoa (NOS) 1879an sortu zuen Pablo Sarasatek, eta Espainiako orkestra-munduan jardunean dagoen elkarterik zaharrena da. Gaur egun, Baluarte Fundazioan sartuta dago, eta erakunde hori batez ere Nafarroako Gobernuak finantzatzen du; beraz, Foru Komunitateko orkestra ofiziala da.

Duela ia ehun eta berrogei urte sortu zen, eta urte horietan auditorio, opera-denboraldi eta jaialdi nagusietan aurkeztu da, bai Espainian bai atzerrian. Bereziki aipatzekoa da hainbat alditan izan dela Parisko Théâtre des Champs Elysées eta Théâtre du Châtelet antzokietan, eta Universal Music zigiluak antolatutako kontzertuen bira ere egin duela Europako agertoki garrantzitsuetan.

Pablo Sarasate konpositore eta biolin-jotzaile nafarraren erreferentziazko interpretari bezala, Naxos zigiluarentzat konpositore honen obra integralaren grabazioa egin du Tianwa Yang biolin-jotzailearekin batera; grabazio hori aho batez goraipatu izan du nazioarteko kritikak. Zigilu horrentzat berarentzat, orkestrak grabazioen programa bat egin du duela gutxi Antoni Wit zuzendariarekin.

NOSek kontzertuen denboraldi bat eskaintzen du urtero Iruñeko Baluarte Auditorioan eta Tuterako Gaztambide Antzokian, eta, era berean, gizarte- eta hezkuntza-arloan jarduera garrantzitsua du Nafarroa guztian. Denboraldi honen hasieratik, Manuel Hernández-Silva da abesbatzaren zuzendari titularra eta artistikoa.





# *Sergio Alapont,*
# *director / zuzendaria*



Reconocido como mejor director de orquesta en Italia, en los premios GBOPERA de 2016, Sergio Alapont es uno de los directores españoles de mayor proyección internacional.

Ha desarrollado una excepcional carrera profesional dirigiendo formaciones como la Filarmónica de Londres, la Orquesta Nacional de Île-de-France, la Orquesta Nacional de Dinamarca, la Sinfónica de la RAI de Turín y las orquestas de la Ópera Nacional de Noruega, la Ópera de Escocia, el Maggio Musicale Fiorentino, el Teatro San Carlo de Nápoles, el Teatro Massimo Bellini de Catania, I Pomeriggi Musicali de Milán o el Bach-Collegium de Stuttgart, entre otras, además de muchas de las orquestas españolas más importantes.

Entre sus éxitos operísticos recientes, destacan *Idomeneo* de Mozart, en la Ópera Nacional del Rin, en Estrasburgo; *Don Bucefalo* de Cagnoni, en el Festival de Ópera de Wexford; la gala de clausura del Concurso Tenor Viñas, en el Gran Teatro del Liceo de Barcelona y en el Teatro Real de Madrid; *La forza del destino* de Verdi, en la Ópera de Las Palmas, o *La viuda alegre* de Lehár, en la Arena de Verona, entre otras producciones que ha dirigido en prestigiosos escenarios europeos.

Sus actuales compromisos incluyen *La rondine* de Puccini, en la Ópera de Minnesota; *Las bodas de Fígaro* de Mozart, en Treviso, Jesi y Ferrara; *Carmen* de Bizet, en la Ópera de Oviedo; una gala con el tenor Gregory Kunde, en Palma, y distintos conciertos con la Filarmónica Janáček, la Orquesta de València y la Sinfónica de las Islas Baleares.

Sergio Alapont orkestra-zuzendari onen gisa aitortu zuten Italian, 2016ko GBOPERA sarietan, eta nazioartean espainiar zuzendari ezagunenetarikoa da.

Ibilbide profesional bikaina egin du, eta hainbat talde zuzendu ditu, hala nola Londreseko Orkestra Filarmonikoa, Orchestre National d'Île-de-France, Danimarkako Orkestra Nazionala, Turingo RAIko Sinfonikoa. Orkestra hauekin ere jardun du: Norvegiako Opera Nazionala, Eskoziako Opera, Maggio Musicale Fiorentino, Napoliko San Carlo Antzokia, Cataniako Massimo Bellini Antzokia, Milango I Pomeriggi Musicali Antzokia edo Stuttgarteko Bach-Collegium. Horrez gain, Espainiako orkestra garrantzitsuenetako asko zuzendu izan ditu.

Operaren munduan duela gutxi izan dituen arrakasten artean hauek nabarmentzen dira: Mozarten *Idomeneo*, Rhineko Opera Nazionalean (Estrasburgo); Cagnoniren *Don Bucefalo*, Wexford Opera Jaialdian; Tenor Viñas Lehiaketaren amaierako gala, Bartzelonako Lizeoko Antzoki Handian eta Madrilgo Antzoki Errealean; Verdiren *La forza del destino* obra, Las Palmaseko Operan, edo Lehár konpositorearen *Alargun alaia*, Veronako Arena Antzokian, Europako agertoki ospetsuenetan zuzendu izan dituen beste produkzio batzuen artean.

Gaur egun dituen konpromisoen artean, hauek aipa daitezke: Pucciniren *La rondine*, Minnesotako Operan; Mozarten *Figaroren ezteiak*, Treviso, Jesi eta Ferrarako antzokietan; Bizeten *Carmen*, Oviedoko Operan; gala bat Gregory Kunde tenorearekin, Palman; eta hainbat kontzertu Janáček Orkestra Filarmonikoarekin, Valentziako Orkestrarekin eta Balearretako Orkestra Sinfonikoarekin.

Art FOR Change "la Caixa"

*Mejorando la sociedad a través de la cultura*

*Kulturaren bidez gizartea hobetuz*

FUNDACIÓN CAJANAVARRA

Obra Social "la Caixa"